

NAFARROAKO GOBERNUA

GARAPEN EKONOMIKOA

ESKUBIDE SOZIALAK

OGASUNA ETA FINANTZA POLITIKA

LEHENDAKARITZA, FUNTZIO
PUBLIKOA, BARNEA ETA JUSTIZIA

HERRITARREKIKO ETA
ERAKUNDEEKIKO HARREMANAK

HEZKUNTZA

OSASUNA

KULTURA, KIROLA ETA GAZTERIA

LANDA GARAPENA, INGURUMENA
ETA TOKI ADMINISTRAZIOA

SEGURTASUNA ETA LARRIALDIAK

Nafarroa, EAE eta Aragoiko ikuskari zerbitzuek lehenengoz egin dute ikuskaritza zerbitzuen bilera Nafarroan

Nafarroako Hezkuntza departamentuko ikuskaritza zerbitzuak antolatuta, Nafarroako, Euskal Autonomia Erkidegoko eta Aragoiko ikuskaritza zerbitzuetako ordezkariak elkartu dira gaur Hezkuntza departamentuan, ikuskaritza-praktiken inguruko lan saioan.

2017-18 ikasterterako Nafarroako hezkuntza ikuskaritza-zerbitzuak ezarriko dituen berrikuntzak aurkeztu dituzte lan-saioan. Izan ere, aurrerantzean ikasleak eta ikastetxeak izango dira aintzat ikuskarrien ebaluaketetan, beti ere egiten diren balorazioen hobekuntza bermatzeko.

Horrez gainera, 3 erkidegoetako kideek elkarbizitza eta eskola-absentismoa izan dituzten hizpide jardunaldian. Bizikidetzaren kasuan, Nafarroako kasua beste biekiko desberdina da, batez ere, Nafarroako hezkuntza-ikuskaritzan bizikidetzat atala ere badagoelako eta beste bietan ez. Eskola-absentismoren kasuan, ados etorri dira hiru erkidegoetako ikuskaritza zerbitzuak jarraipen estua egin behar zaiola, ebaluaketan duen eragina handia baita.

Ikuskaritza-zerbitzuen jardunaldietan EAeko lau ordezkariak eta Aragoiko zortzik parte hartu dute, probintzia guztietakoak, alegia. Aurten, bada, lehenengoz egin da hiruko bilera Nafarroan eta aurrerantzean elkarlanean jarraitzeko konpromisoa adierazi dute guztiek, eta datorren urtean beste erkidegoren batean elkartzeko asmoa adierazi dute, bestelako gaitan ere iritzia elkartrukatzeko eta ikuskaritza zerbitzuak ontzen joateko.

Osteguna, 2017.eko ekainak 22



Gaurko jardunaldietako partaideak.